

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Manuel Erkizia Uria

*Andoain,
Gipuzkoa
(1923)*

Aurkibidea



Biografia



Andoingo Gureola zentrolean jaio zen. Aita Zumaiakoa zuen eta ama, berriz, Aizarnazabalgoa. Sei senidetan laugarrena izan zen Joxe Manuel. Gerra Zibilaren beldurrez, Zumaiara joan ziren amarekin; eta, han zeudela, aita fusilatu egin zutela entzun zuten. Andoainera joan eta aita bizirik zegoen, bizitzaren kasualitate on batengatik. Pilotari ona izan zen Joxe Manuel, eta soldaduskan ere horretan aritu zen liberatuta. Laborde lantegian, arduradun egon zen enpresaren garai zailenetan. Azken urteetan, Orion eta Donostian bizi izan da.

Zintak

AND-019

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-06-11
- **Iraupena:** 111 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Aita fusilatu zutela esan zieteneko estutasuna

- **Erref:** AND-019/002
- **Iraupena:** 0:05:14. **Hasi:** 00:01:52. **Bukatu:** 00:07:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra hasi zenean, anaia bat frontera joan zen, 17 urte zituela; eta aita ezik etxeko beste guztiak Zumaiara joan ziren. Han zirela, aita fusilatu zutela esan zieten; baina gezurra zen. Zergatik esan zieten hori azaltzen du: aita ozta-ozta libratu zen heriotzatik.

2. "Fusilatzeke ez zen askorik behar"

- **Erref:** AND-019/003
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:07:06. **Bukatu:** 00:09:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra garaian, jendea fusilatzeke ez zen askorik behar. Gizon bat ia-ia fusilatu egin zuten, erdaraz ez zekienez, ezin zuelako bere burua defendatu. Azkenean, Joxe Manuelen aitak lagundu zion, eta salbatu egin zen.

3. Fusilatu aurretik idatzitako gutuna

- **Erref:** AND-019/004
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:09:17. **Bukatu:** 00:11:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerran fusilatu zituzten gehienak ezagutzen zituen. Haietako bik dantzak erakusten zizkieten, eta abertzaleak izateagatik fusilatu zituzten. Gizon batek, fusilatu aurretik, gutun bat idatzi zion bere familiari: fusilatu behar zutenei barkatzeko eskatzen zien familiakoei.

4. Andoainen fusilatutakoak eta gerrara eramandakoak

- **Erref:** AND-019/005
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:11:24. **Bukatu:** 00:13:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Andoainen 20 bat lagun hil zituzten gerra garaian. Gerra hasi zenean, gazteak frontera eramane zituzten, arma gutxi batzuekin. Frontea pixkanaka Andoaina hurbiltzen joan zen.</p>

Transkripzioa

- Zenbat gizon eta zenbat emakume... batez'e gizonak pentsatzen det...
- Andoaiñen, nik ez dakit, 20 bat o ze hilko zittuen. Nik esan dizut ba...
hiru-lau, bai, direkto ezautzen nittun ta baiño... Geo, beste batzuk bazian a... este... aurreneko... han gerran sentittu genuna, gerra hasi zala 18 de juliuan hasi zan, baiño... hasi zala jakiñ ta geo... aurreneko biltzen hasi zanian jendia. Gaztai deittu ziyuen, ta plaza juateko. Ta plazatikan juaten zian grupuan... zeara... Belabita o zea... este Naparruako bire horta... juten zian. Andoaingo terrenoa, baiño harea juaten zien. Ta etortzen zian hurrengo eunian ta... baiño eskopeta batzuk ta besteak ezerre gabe. Ta jefia zeakin... bat in zuen zea hola jefe bezela... zea pistolakin hua ta...

hala juaten zian, ta etortzen zian ta "Ez dira azaldu, ez dira azaldu!" ta hola. Ta eunetan, ta eunetan... ta geo, azkenian, koño ikusi zituela aurrenenguak ta tiro batzuk izan ziala... Ta hola hasi zan... zea... hola etorri zian. Ta... este... gaur arte. Hala... hoi zeatu zan, ta geo beti hau hartu duela, bestia hartu duela... ta aurreatzen ta aurreatzen ta aurreatzen ta aurreatzen ta momentua etorri zan... gu han bizitzen giñan ingurun gendukan... este... Illurramendi. Uain'e han do baserriya haundiya, baiño hua bina zan; Pagola ta bestia Goiaran zian. Ta haik zuen osaba bat eo monarkikua, baiño goberno... Madriko gobernuak pagatzen ziyola ta zean. Ta horreatikan bastante... gerra... bastante bertatikan ikusi nun, hasi baiño lehenore. Ta geo, hoik ezautzen...

5. Arrebari ere ilea moztu nahi izan zioten zigor gisa

- **Erref:** AND-019/010
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:21:41. **Bukatu:** 00:23:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra garaian, Andoaindik Zumaiara joan ziren ihesi. Garai hartan, neskei ilea mozten zieten zigor gisa; Joxe Manuelen arreba zigortu egin nahi izan zuten; baina, osabari esker, salbatu egin zen neska-talde bat, haien artean arreba.

6. Apaizak pulpitutik nazionalistei buruz esandakoak

- **Erref:** AND-019/011
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:23:47. **Bukatu:** 00:24:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Gerra garaian, Zumaiako San Migel auzoan zirela, apaiz batek nazionalistei buruz esandakoak gogoan ditu.

7. Liskarren ostean, apaizari barkamena zor zioten

- **Erref:** AND-019/012
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:24:20. **Bukatu:** 00:28:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Zumaiako San Migel auzoan, garai hartan, bi baserri karlisten aldekoak ziren; eta beste guztiak, nazionalisten aldekoak. Apaiz bat etorri zen orduan, baina familia karlistek bota egin zuten. Apaizak joan behar zuenean, ordea, trenak

familia haietako bateko emakumea hil zuen; eta apaizak barkatu egin zien ordura arte berarekiko izan zuten jarrera.

8. Gerra garaian Zumaian, baserriko lanetan iaioa

- **Erref:** AND-019/014
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:29:20. **Bukatu:** 00:31:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Baserría » Baserriko lanak

Laburpena:

Gerra garaian, Zumaian egon ziren baserrian hilabete inguru. Han, baserrietako lanetan trebea zen Joxe Manuel; eta osabak apustuen bidez xaxatzen zuen. Gerora, Joxe Manuel hainbatetan joan zen Zumaiako baserrira Andoaindik, baserriko lanetan laguntzera.

9. Eskolan gustura, baina kirola egiten are gehiago

- **Erref:** AND-019/016
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:33:25. **Bukatu:** 00:35:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Joxe Manuel eskolan ibili zenean, maisu ona izan zuen, "Tolosa". Haren zigorrak gogoan ditu. Joxe Manuelek erraz ikasten zuen, baina denbora gehiena kirola egiten ematen zuen; gehienbat, pilotan. 14 urterekin, baina, fabrikari hasi zen lanean; eta kirola egiteko denbora gutxitu zitzaion. Orduko lan-baldintzak aipatzen ditu.

10. Soldadutzan, pilotan aritzeko liberatuta

- **Erref:** AND-019/018
- **Iraupena:** 0:05:34. **Hasi:** 00:36:42. **Bukatu:** 00:42:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Soldadutzara joan behar izan zuenean, 28 hilabete egon zen han. Pilotan jokatzeko aritzen zen, eta orduko partida batzuen nondik norakoak aipatzen ditu. Azkenean, pilotan jokatzeko liberatu zuten.

11. Soldadutza garaian jaso zuen zigor bakarra

- **Erref:** AND-019/020

- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:43:50. **Bukatu:** 00:46:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Zigor bakarra izan zuen soldadutza garaian, eta zergatik azaltzen du.

12. Soldadutzan bizargintza ikasi zuenari buruzko anekdota

- **Erref:** AND-019/021
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:46:34. **Bukatu:** 00:49:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Soldadutzara joan zenean, lanbideren bat zekiten boluntarioak eskatu zituzten. Ile-apaintzailea falta zenez, zumaia bat boluntario aurkeztu zen, nahiz eta ilea mozten ez jakin. Han ikasitakoari esker, ordea, lizentziatu ostean, bizartegia ireki zuen Zumaian. Soldadutzan, bizargin hark brigadarekin izandako anekdota kontatzen du.

13. Soldadutzatik itzultitakoan, pilota ala Laborde?

- **Erref:** AND-019/022
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:49:10. **Bukatu:** 00:51:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Soldadutzatik itzuli ostean, pilotan jokatzeko hitzartuta zegoen hainbat lekutan. Labordek, hala ere, lanera itzultzeko deitu zuen Joxe Manuel; eta, azkenean, lanean ardura handiko kargua eskaini zion.

14. Laborden lanean eta ikasten

- **Erref:** AND-019/023
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:51:51. **Bukatu:** 00:53:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Soldadutzatik itzultitakoan, Labordenera itzuli zen lanera, baina soldadutzara

joan aurretik zeukana baino ardura handiagoko lanpostu batean. Lan egin bitartean, ikasteko aukera ere izan zuen "escuela de aprendizaje"n.

15. Laborden altzairua lantzeko izandako arazoak

- **Erref:** AND-019/026
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 01:01:18. **Bukatu:** 01:04:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Burdinari buruzko azalpenak ematen ditu. Laborde lantegian zebilela, zenbait arazo izan zituzten altzairuarekin. Azkenean, altzairua lantzeko zatia itxi egin zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com